



ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ EZ BAITIRA ONARTZEN XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAK.

Esp.-zk.: 34/2016, 36/206, 39/2016 eta 41/2016.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak Karateko Bizkaiko Federazioren hauteskondeekin lotutako lau idazki aurkeztu zituen, hauteskondeak aurkaratzeko asmoz; lau idazkiei 2016ko azaroaren 11n, 14an, 15ean eta 24an eman zitzaien sarrera, eta 2016. urteko 34., 36., 39. eta 41. espediente-zenbakiekin identifikatu ziren.

Bigarrena.- Aurreko idazkietan zer errekurritzen zen eta zer eskatzen zuen ez zegoenez oso garbi, 2016ko abenduaren 15ean Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek abenduaren 7an emandako Ebazpen bat jakinarazi zitzaion xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunari; Ebazpen horretan, hamar eguneko epea ematen zitzaion honako hauek adierazteko: *“Errekurritutako egintzak eta aurkaratzearen arrazoia.”*

Lehenengo aurrekarian aipatutako idazkien atzetik, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak beste batzuk ere aurkeztu zituen 2016ko abenduaren 29an eta 2017ko urtarrilaren 5ean, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidente José Luis Aguirre Arratibel jaunaren errekusazioa ere eskatu zuen.



Bestalde, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak abenduaren 7ko erabakia berriz jakinarazi beharra zegoela pentsatu zuen, eta 2017ko otsailaren 10ean berriro ere jakinarazi zitzaion XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari.

Hirugarrena.- Epe horren barruan, zehazki, 2017ko otsailaren 13an, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak idazki bat aurkeztu zuen informazio jakin bat eskatzeko, errekerimendu horri *“erantzun zehatza eman ahal izatearren”*.

Laugarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen Erabakiaren arabera, 2017ko otsailaren 23an espediente-ikustaldia eman zitzaion XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari eta, hartara, *“lehen aipatutako errekerimendua betetzeko emandako hamar laneguneko epea zenbatzen hasiko da XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak espediente-ikustaldia egin eta hurrengo egunean edo, hala badagokio, eskatzen dituen dokumentuen kopiak helarazten zaizkionean. Espediente-ikustaldiaren izapide hori gehienez ere bost laneguneko epean bete beharko da, betiere XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari Erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bestela, errekerimenduari erantzuteko emandako hamar eguneko epea amaitutzat joko da, eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du.”*

Era berean, José Luis Aguirre Arratibel jaunaren aurkako errekusazioa ez onartzea erabaki zen, bai eta gainerako eskaerak ezestea ere, lehen esandakoaren arabera.

Erabaki hori 2017ko martxoaren 1ean jakinarazi zitzaion XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari.



Bosgarrena.- Martxoaren 6an, emandako epearen azken egunean, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak idazki bat aurkeztu zuen eta, bertan, espedientea eskuratzeko interesik ez zuela adierazi zuen, espediente osoaren kopia baino ez baitzuen nahi.

Halaber, epea igaro zelarik, jakinarazpen elektronikoko bat igorri zuen KJEBara espediente-ikustaldirako interesik ez zuela berresteko, baina bai, ordea, espedienteko dokumentu guztien kopia lortzeko.

Seigarrena.- Aldez aurretik, 2017ko otsailaren 24an, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak “*KJEBak eskatutako azalpenak*” izeneko idazki bat aurkeztu zuen, lehen aipatutako errekerimendu hori betetzeko asmoz, hasieran, behintzat.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak Kirol Justiziako Euskal Batzorde honen (hemendik aurrera, KJEB) errekerimenduari erantzuteko dokumentuaren izenburua izenburu, dokumentu horretan ezer gutxi argitzen du, aurretik aurkeztutako beste dokumentu guztietan emandako azalpenez gain.

Izan ere, espedientean xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak kirol-arloan eskumenak dituzten hainbat estamentutara bidalitako hamaika idazki biltzen dira, guztiak ere kexa, eskakizun edo iritziz beterik, baina haien artean ez dago uniformetasun edo koherentziarik batzorde honek dagokion lana behar bezala bete ahal izan dezan.



Horregatik bidali zitzaien XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari aurreko idazkietan adierazitakoa zehazteko errekerimendua.

Bigarrena.- XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak egindako alegazioak aztertzen hasi aurretik, espediente-ikustaldiaren eta kopiak eskuratzearen kontuari erreparatu behar diogu.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak berak beharrezkotzat jotzen zuen espedientean bildutako informazioa errekerimenduari *“erantzun zehatza eman ahal izatearren”*.

Hala ere, interesdunak ez du inolako ahaleginik egin espedientea “in situ” ikusteko, falta duen dokumenturen bat ea aurkitzen duen, bere burua defendatzeko interesgarria dena, eta bertatik bertarako saio hori zalantzaren bat argitzeko ere balia zezakeen, besteak beste, administrazio-prozeduretan egin ohi denez.

Ikustaldiaren izapide horretan, gainera, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak ez du administrazio-egoitzetara joan beharrik nahitaez, bere legezko ordezkariak egin baitezake hori, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikulua arabera.

Horren ordeztuz, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak berriro eskatu ditu, harrokeria-kutsu apur batekin, *“espediente guzti-guztietako dokumentu guztien kopiak. Oraindik zenbakitu ez dituenak ere bai”*.



Hori horrela dela, lehenik, errekurtsogileak hamaika datu eman eta askotariko argudioak aurkeztu dituenek idazkietan, zalantzan jartzen dugu espediente osoko kopiak modu masiboan lortu behar izate hori, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak espedientearen zati handiena bai baitu, osoa ez bada, aldez aurretik administrazio-bidean nahiz auzibidean egindako ekintzen ondorioz.

Bigarrenik, jurisprudentzian jasota dago espediente oso baten kopia-eskaera bereizi gabe, justifikaziorik gabe eta testuingurutik kanpo egindako kasuetan gertatutakoa.

Adibidez, Auzitegi Gorenaren 1998ko otsailaren 13ko Epai baten arabera, legeriak *“ez die ematen partikularrei fotokopiak bereizi gabe lortzeko aukera, mugarik gabe baimenari dagokionez -- 7. atalean ez da ezartzen sarbide mugagabeko eskubidea, baizik eta **kontsultatu nahi diren dokumentuen banakako eskaera egitea eskatzen du, eta ezin izango da eskaera orokorrik egin gai bati edo gai sorta bati buruz, betiere aukerakotzat hartzeko ez bada”***.

Zehatzago esanda, espediente oso baten kopiak ukatu izanari dagokionez, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2002ko maiatzaren 23ko Epai batean honako hau jasotzen da:

“Errekurritutako ebazpenak ukatu egiten du espediente osoaren fotokopia lortzeko eskaera, baina espedientea kontsultatzeko aukera baimentzen du, dagokion diru-bilketako bulego publikoan, eta, aldi berean, interesdunak egokitzen iritzitako dokumentazioaren kopia eskatzeko aukera ere ematen du; kopia horiek –dio errekurritutako egintzak– eman egingo dira hirugarrenen intimitaterako eskubidea urratzen ez den kasuetan, eta betiere –aurkaratutako egintzaren edukiaren arabera– pertsonen intimitaterako



eskubidea bermatzeko xedez. Aurreko guztia aztertuta, bi eskubideren arteko gatazka dagoela esan dezakegu, itxuraz, behintzat: alde batetik, eskaeran argudiatzen den benetako babes judizialerako eskubidearen eta, bestetik, pertsonen intimitaterako eskubidearen artean, biak ala biak oinarrizko eskubide izanik. Puntu honetan gaudela, zalantzan jarritako ebazpenak demandatzailearen defentsa-eskubidea zenbateraino kaltetu duen aztertu behar da eta, horretaz gain, Administrazioak intimitaterako eskubidea argudiatzea justifikatuta ote dagoen ere aztertu beharko da, erreferentziako espedientearen fotokopiak egitea mugatzeko errekurritutako egintzan egin den arabera. Hori horrela dela, 30/1992 Legearen 35.a artikulua arabera, herritarrek "interesdunak badira, edozein unetan jakin dezakete prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzakete" (...) eta kontuan izan behar da manu horrek ez diela bermatzen interesdunei prozedura guztien kopia eskuratzeko eskubidea, baizik eta "prozedura horietako agirien kopiak" (...). Bestalde, demandatzaileak nekez argudia dezake arrakastaz babesgabetasun-egoerarik ez baitzaio ukatu ezein dokumentu zehatzen kopia. Eskaera zehatzagoa egin izan balu, eta ez erreferentziako espediente osoa, demandatuak gatazkan egon daitezkeen interesak balioetsi ahal izango zituzkeen eta, kasuan kasu, balizko ukatzea arrazoituko zukeen, baina ukatze hori Auzitegietan aurkaratu ahal izango zen eta, hartara, ukatze hori oinarrituta ote dagoen epaitu ahal izango zen; horregatik guztiagatik, babesgabetasunaren alegazioa har daiteke, kontuan hartzen badugu demandatzaileak espediente osorako sarbidea izan duela, kontsulta bidez, eta administrazioak ez diola ezezkorik eman dokumentu jakin baten kopia interesdunari emateari. Hortaz, azken batean, ez zaigu iruditzen babesgabetasun ageriko egoerarik dagoenik eta tesi hori baztertu egin behar da, bai eta errekurtsioa bera ere, demandatzaileak eskatzen zuena ezin baita hartu bere horretan."



Eskubide bat xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak nahi zuen moduan baliatzea erabat abusuzkoa da, eta KJEB honi kopiak egiteko lan izugarria eskatzen zaio, aldez aurretik, gainera, dokumentuak banan-banan aztertu behar dituela izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko araudiaren urraketarik gerta ez dadin. Baina lan hori askoz ere errazagoa izango litzateke baldin eta xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak edo, bestela, haren ordezkariak zehaztuko balute zer dokumentu zehatz falta duten (zalantzarik gabe, gutxi izango dira), Batzorde honek egiaztatu ahal izan dezan kopiak ematean ez dela irregulartasunik gertatzen eta kopia horiek emateko.

Azken batean, Auzitegi Nazionalaren 2001eko apirilaren 4ko Epaian aipatzen denez, aplikatu beharreko araudian “*Administrazioaren betebeharrak bat ezartzen da; hain zuzen ere, Administrazio Publikoetako Erregistro eta Artxiboetarako sarbidea ahalbidetzeko betebeharrak. Eta autoen kasuan hori egiteko baimena eman zen, demandatzaileari entzunaldia eman baitzitzaion, (...), baina betebeharrak ez du esan nahi dokumentuen kopia eman behar denik eta, are gehiago, ez bada behar bezala egiaztatzen eskatzen diren dokumentuen kopiak zer nolako lotura duten baliatzen den uziarekin. Horregatik, 37. artikuluko horren 7. atalaren arabera **sarbide-eskubidea baliatzen denean ez da eraginik izan behar zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasunean**, eta ez dira onartuko gai bati edo gai sorta bati buruzko eskaera orokorrak; beraz, 37. artikuluko horren 8. atalari jarraikiz, ezin da kopia edo ziurtagirien eskaera orokor edo globalik egin, eta are gutxiago jarduketetarako sarbidea izan denean izapidetze-prozesu guztian (...). Horrenbestez, ez dugu uste Konstituzioaren ezein manu urratu denik, errekurtsogileak nahi duen moduan, eta ez dugu uste asmo onak, konfiantza legitimoak edo leialtasun instituzionalak porrot egin dutenik, Sustapen Ministerioak, edozein kasutan, bere eskumenak baliatzen jardun baitu, ezarritako prozedurari dagokionez.”*



Beraz, KJEB honek uneoro ahalbidetu dio XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunari defentsa-eskubidea baliatzea, baina hark uko egin dio eskubidea zentzuzko baldintzetan eta araudian nahiz jurisprudenzian ezarritako moduan baliatzeari; horren guztiaren ondorioz, ez da bidezkoa administrazio-espediente osoaren kopiak egitea bereizgabe.

Hirugarrena.- Gaiaren mamiari dagokionez, gogora dezagun hauteskundearen arloan, eta azken batean, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunaren ahalegin guztiak arlo horretakoak dira (Karateko Bizkaiko Federazioan 2016an egindako hauteskundeak aurkaratzea), KJEBaren eskumena honako lege hauetan ezarria dagoela aurrez: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan, honela:

“Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenak hauek izango dira:

(...)

b) Kirol-federazioetako hauteskunde-batzarren erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzea eta ebaztea.

Dena dela, aurkaratutako egintzak zehaztea eta identifikatzea eskatu zaion arren, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak ez du identifikatu berak errekurritutako hauteskunde-batzarraren erabaki bat bera ere.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 115.b) artikulua araberak, errekurtsioa jartzean, adierazi behar da ***“zer egintzaren aurka jartzen den errekurtsioa eta zergatik”***. Esanbidez eskatuta ere, eduki hori ez du adierazi hauteskunde-batzordearen zer erabaki aurkaratu den zehazteko, eta gainera, KJEBak ez du XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak egindako gainerako



eskaerak betetzeko eskumenik; beraz, 39/2015 Legearen 116. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eskaera ez onartzea erabaki dugu.

Laugarrena.- Izan ere, esanbidez zera eskatzen du, “2016ko hauteskundeak geldiaraztea”, “hauteskundeak indargabetzea”, “hauteskunderik ez egitea”, hau da, eskaera erabat generiko eta zehaztugabeak eta guk ezin dugu horietan jardun zer egintza zehaztetan (hauteskunde-batzordearen erabakia) oinarritzen edo gauzatzen diren, egintza hori baldin badago.

Eta KJEBari beste hamaika eskaera ere egin dizkio, baina gure ustez ez dira erabilgarriak edo egokiak eta, nolana ere, organo honek ez du, inolaz ere, horien gaineko eskumenik: Karateko Bizkaiko Federazioari espedientea irekitzea, Karateko Bizkaiko Federazioari eskatzea “urte bakoitzean zer lizentzia mota eskatu dudan egiaztatzea”, “2011. urtean izan nuen aseguru-polizaren kopia bidaltzea, bai eta 2012ko 2. seihilekoan izan nuenarena ere”, edo “federazioaren presidente kargua bateraezintzat jotzeko karate irakasteko enpresak dituzten edo lanbidez kirol-irakasleak diren pertsonentzat”.

Berriro diogu, gu ez gara kirol-arloaren barruan irregulartasun-susmo txikiena sortzen denean berehala jarduteko brigada bat; KJEB honen jarduketa-eremua indarreko araudian ezarrita dago aurrez, bereziki, lehen aipatu ditugun Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138. artikuluan, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3. artikuluan.

Legerian “ad hoc” esleitutako eginkizun horietaz kanpo, KJEBak ez du eskumenik. Hala ere, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak behin eta berriz eskatzen dio organo honi geure legezko eskudantziez kanpoko alderdiak ebazteko, eta egindako eskaerak eskudantzia horien eremura bideratzeko eskatu diogunean, azkenean bat bera ere ezin zaio atxiki “kirol-federazioetako hauteskunde-



batzarren erabakien aurka jarritako errekurtsok aztertzea eta ebaztea” eginkizun zehatzari edo Legez zehaztutako gainerako eginkizunei.

Bosgarrena.- Ez onartzeko erabaki hau ez da berria, inondik inora ere, **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunarentzat.

Izan ere, errekurtsogileak akats berdinak egiten ditu behin eta berriz. Argudioak hainbeste sakabanatzen ditu, ezen ezinezkoa baita zehatz-mehatz zehaztea zer den erreklamatzeko duena.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak maiz aipatzen du Karateko Bizkaiko Federazioaren aurreko hauteskunde-prozesua (2012. urtekoa), eta gaur egun akats edo irregulartasun berdinak egin direla dio, nola esaten duen ikusita, badirudi prozesu horretan berari eman zitzaiola arrazoia. Bestela esateko, duela lau urteko hauteskundeetan interesdunak berak frogatutzat jotzen dituen baieztapen eta gertaerak aipatzen ditu, baina kontua da ezein organok, ez administrazio-bidean, ez auzibidean, ez dituela frogatutzat jo akats edo irregulartasun horiek.

Aitzitik, KJEBaren 2012ko abenduaren 28ko Ebazpenean ez zen onartu **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak Karateko Bizkaiko Federazioaren hauteskunde-prozesuari buruz aurkeztutako errekurtsoa.

Ebazpen hori jurisdikzio-bidean errekurritu ostean, Administrazioarekiko Auzien Bilboko 2. Epaitegiak osorik ezetsi zuen **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunaren errekurtsoa, martxoaren hamaikako 40/2016 zenbakidun Epai bidez. Ebazpen judizial horretan honako hau irakur daiteke hitzez hitz: **“Federazio-*organoek emandako egintza guztiek ez dute administrazio-izaera, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen kontrolari atxikita egon daitezke, edo ez”***. KJEBari legez esleitu zaizkion eginkizunak berraztertu ostean, magistratuak



zera dio bukatzeko, **“XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunaren eskaerak irakurrita, argi eta garbi ondorioztatzen da ez direla sartzen zerrendatu eta deskribatu ditugunen artean”**.

Eskaera horiek, hein handi batean, errepikatu egiten dira aztergai dugun espediente honetan, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak berak hamaika idazkietan askotan gogorarazten digun moduan, baina argi dago defentsa-estrategia hori ez dela egokia haren interesetarako, edo aipatutako Epaian aipatzen zenez, **“ugaritasun goraiagarriarekin baina gehiegi”** baita; horregatik, KJEB honek ezin du bere gain hartu azterketa hori (organoaren eginkizunen barruan sar litekeen zatia ez zehazteagatik, eta proposatutako gainerako alderdietan eskumenik ez duelako) eta, beraz, koherentzia-ariketa bat eginez, tratamendu bera eman behar zaio.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKI DU

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak Karateko Bizkaiko Federazioaren hauteskunde-prozesuari buruz aurkeztutako errekurtsok ez onartzea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik



aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 16a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea